



04

mesanotxean

Sare birtualak

"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.

Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.



mesanotxean 04

Izenburua: Sare birtualak

Egileak: Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gazte Faktoria: Joxe Jimenez eta Olatz Miranda (edukien laguntzailea)

Bilduma: Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

Bildumaren koordinazioa: Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

Diseinua eta maketazioa: Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

Hizkuntz aholkularitza: Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaraldia: 2010eko Otsaila

Oinarrizko dokumentua:
Elkartuko gara Tuenti-n, Myspace-n,
Facebook-en...

orrialde 4/12

Proposamenen dokumentua:
Nola heldu sare sozial birtualen
gaiari Gipuzkoan?

orrialde 14/18

Tresnak
Gaiari buruzko gehiago jakiteko...

orrialde 20/21

Oinarrizko dokumentua:

Elkartuko gara Tuenti-n, Myspace-n, Facebook-en...

Gaur egun, institutuan, kiroldegian, gaztelekuan, plazako arkupean edota autobuse-tan, erraza da gazteen arteko halako elkarrizketa bat entzutea: «Elkartuko gara zazpietan Tuentin? Ados. Agur». Elkarrizketa horri esker guraso baten, hezitzaile baten, amona baten, irakasle baten edota, zergatik ez, gazteria teknikari baten burutik pasatzen diren hainbat gai planteatu ditzakegu. Non elkartuko dira? Zertarako elkartuko dira? Nor elkartuko da? Zergatik dute gustuko? Zer egiten dute? Halako zenbat leku daude? Nork antolatzen du? Nortzuk dira arduradunak? Galdera horiek, eta ziurrenik beste batzuk, erantzun beharko ditugu, sare sozialen fenomenoak ulertu nahi badugu.

Sare sozialen fenomenoan sakondu baino lehen, aztertu behar dugu zergatik nahiago duten interneten nabigatu telebista ikusi baino. Gainera, Zed Digital enpresak argitaratutako azterlanaren datuen arabera, gazteek beren denboraren %22 gehiago ematen dute Interneten ibiltzen telebista ikusten baino¹.

Antonio Ortizek «Jovenes y Redes Sociales 2009» jardunaldian aurkeztutako eta Generación Interactivaren foroan argitaratutako datuekin erabiltzaileen profila ezagut dezakegu: «Gazteak eta autodidaktak dira, eta sarearen bidez komunikatzen dira. Estatu espainiarreko nerabeen %88k astean behin erabiltzen du Internet, eta %70ek, bakarrik ikasi zuen erabiltzen, 18 urte baino gutxiagoko gazteen %70ek sare sozialak erabiltzen ditu eta 17 urte baino gehiagoko guztiek mugikorra dute²». «Batez ere, bideoak ikusten dituzte eta nabigatu egiten dute. Ondoren, eskolako lanak egiteko informazioa bilatzen dute. Jarduera horiei gertutik jarraitzen diete sare sozialen, txaten eta posta elektronikoen erabilerak³».

Zed Digitalek egindako azterketaren arabera, erabiltzaileek gustukoak dituzten jardueren artean sare sozialen erabilera hirugarrena da, bilatzaileen erabileraren (lehena) eta posta elektronikoen (bigarrena) atzetik.

Sare sozialen fenomenoak gazteen eguneroko bizitzan lehentasunezko tokia lortu duela jakin ondoren, gure aztergaira hurbiltzeko emango dugun lehenengo urratsa belaunaldi berriko 2.0 sareko markek dituzten funtzioak ezagutzea izango da. Haien egin-kizun nagusiaren arabera sailkatu ditugu:

- Ikusteko, partekatze eta deskargatzeko web orriak (Google, Youtube, Emule...).
- Musika entzuteko eta erosteko webak (Spotify, LastFM, Slacker...).
- Informazioa lortzeko web orriak (Wikipedia, El rincón del vago...).
- Dendak (eBay, Amazon...).
- Gauza pertsonalak argitaratzeko weblogak (Eblogger, Fotolog, Wordpress...).
- Kideekin konektatzeko eta komunikatzeko sare sozialak (Facebook, Twitter, Xing, Tuenti...).

1. ZedDigital (2008). Sare sozialen fenomenoak, www.zeddigital.es

2. Antonio Ortiz (2009). Ingenio herrian eginiko «Jovenes y Redes Sociales 2009» jardunaldia, www.ingeniojuven.com

3. Panda Security (2009). Euskadiko adin txikikoen segurtasun azterketa, <http://www.wikio.es/article/adolescentes-vasco-contacta-de-sconocidos-traves-internet-155904848>

Bigarrenik, 2.0 komunikazioaren kontzeptua zehaztuko dugu. Wikipediaren arabera, komunikazio librea ahalbidetzen duten baliabideen edota sare sozialen bidezko komunikazioan oinarritzen da. *Networking social* izeneko diziplina berri baten oinarriak hartzen ditu printzipio nagusi moduan: elkarrekintza, lankidetzeta eta horizontaltasuna. Ezagutza teknikorik gabe edukia eta erkidegoak sortzeko erabiltzen dituzte tresna hauek erabiltzaileek⁴.

WEBLOGETATIK SARE SOZIALETARAKO JAUZIA

Hobeto ulertzeko esan dezakegu sare soziala blog pertsonalen garapen moduko bat izan daitekeela. Weblogen eta sare sozialen arteko bereizketa ez dago oso argi batzutan. Antonio Ortizek⁵ honela bereizten ditu: «Blog sistema bat erabiltzaileari ezaugarri berezi batzuk dituen argitalpen bidea eskaintzen diona da (ezaugarri bereziak: alderantzizko ordena kronologikoa, artikulua bakoitzerako behin betiko esteka eta irakurleek iruzkinak egiteko aukera). Sare sozialen helburua, ordea, sareko kideei komunikatzeko bidea eskaintzea da (erabiltzaileak eta haien lagunak) gai jakin baten inguruan (futbolzaleak, animalien jabeak, eta abar) edo ez».

Dirudienez, sare sozialek blogak gainditu dituzte, kopuruari zein iraunkortasunari dago-kienez. Erantzun beharreko galdera ondokoa da: zergatik gertatu da hori? www.error500.net arduradunaren arabera, gakoa garrantzia da eta ez kalitatea. Erabiltzaile bati askoz gehiago axola zaio inguruan geratzen dena edozein gairi buruzko eduki editoriala baino.

Herritar guztien joera berbera agertzen da gazteen artean. Mac Arthur Foundationek (NYTren bitartez) egindako ikerlan batek AEBetako 800 gazte aztertu zituen hiru urtez. Haren arabera, «nerabeek sare sozialetan pasatzen duten denbora ez da alferrik galdutakoa; aitzitik, oso baliagarria da sozialki eta teknikoki trebatzeko». Bi elkarrekintza mota daude: lehena lagunekin egun osoan harremanetan egotea (maila pertsonalean garrantzitsua dena bilatzea) eta bestea, gai baten inguruko edukiak lortzea eta erkidegoetan sartzea (kalitatezko edukia bilatzea).



4. Wikipedia (2010). 2.0 komunikazioaren definizioa (gaztelaniaz).

5. Antonio Ortiz Medina (2009). Blogak sare sozialen garaian, www.error500.net

Bertako gazteek sareetan parte hartzeko duten arrazoi nagusia honako hau da: «Koadrilako lagunekin harremanetan egoteko, festa komentatzeko, argazkiak elkarri bidaltzeko...». Batez ere, ezagunekin izaten dira harremanetan (Facebooken harremanen % 89 era bateko edo besteko ezagunekin izaten da), baina beste pertsona batzuk ezagutzeko aukera ere badago (batez ere lagun bitartez).

Beharbada, sareetako kide izateko nerabeen arrazoia haien burua sozialki ez bazterzea da. Hain zuzen ere, sare hauei lotutakoek dute harreman gehien; haietako batzuek, ehunetik gora. Era horretan, gazteek (18 urte gorakoak) modernotasun itxura eman nahi dute, eta agian horregatik, zorrotzagoak dira harreman berriak onartzerakoan⁶. Edo, beharbada, mundu presentzian gertatzen zaienaren isla baino ez da.

«Edozer toki eta une da egokia konektatzeko» ideia ez dator bat errealitatearekin. Oro har, nerabeak egunean behin konektatzen dira, ikastetxetik itzultzen direnean edo afaldu ondoren, etxean, eta ordu bete edo bi ematen dituzte sare sozialetan. Ordenagailua etxeko guztiek erabiltzen duten gela batean egoten da, maiz, anai-arrebaren batekin partekatzen duten gelan⁷. Unibertsitateko ikasleak edo langile gazteak, ordea, egunean hainbat aldiz konektatzen dira, libre izaten dituzten tartetan. Hogeita sei urtetik gorako gazteek gauetan konektatzeko ohitura dute.

Oro har, sare sozial bat baino gehiagoko kide dira; batez beste 2,9 plataformatan daude izena emanda eta 1,8tan hartzen dute parte. Beraz, esan dezakegu erabiltzen dutena baino gehiago izatea atsegin dutela. Berentzat erakargarriena zein den erabakitzeko, lagunak edo ingurukoak non dituzten da giltza. Une honetan, Estatu Espainiarreko sare arraskatsuenak honako hauek dira: Facebook (% 38), Tuenti (% 24) eta MySpace (% 14). Hamabi eta hamasei urte artekoentzat Tuenti da gogokoena, eta 16 urtetik aurrera nahiago dute Facebook.

Gero eta sare gehiago daude, era guztietakoak (orokorrak, profesionalak, espezifikoak, eta abar), eta batzuek helburu komertziala dute. Sare sozialen mapa egiten saiatuko gara. Gaur egungo fenomeno ezagutu nahi badugu, garrantzitsua da plataformen nahaspilan ez galtzea. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteen Informazioko eta Dokumentazioko Lurralde Zentroko gazte informazio teknikari taldearen lana hartuko dugu abiapuntu⁸.

Zerbitzuak edo informazioa ezagutarazteko beharrezkoa da norberaren beharretara hobe egokitzen den plataforma aukeratzea. Horretarako, ezinbestekoa da sareen ezagutzea. Dena den, bi ohikoenak zehaztasunez azalduko ditugu eta gainerakoak laburpen koadroan jarriko ditugu. Horiei buruzko informazio gehiago izateko, lehen aipatutako dokumentura jo dezakezue.

6. ZedDigital (2008). Sare sozialen fenomenoak, www.zeddigital.es

7. Maialen Garmendia eta Carmelo Garitonaindia (2009). «Cómo usan internet los jóvenes: hábitos, riesgos y control parental». Leioa. www.ehu.com/eukidsonline

8. SARE SOZIALAK (2009). Gazte Informazio eta Dokumentazioko Gipuzkoako Lurralde Zentroa. Gipuzkoako Foru Aldundia

Facebook Munduan kide kopuru gehien dituen sareetako bat da. Profila sortu ondoren, lagunekin harremanetan jartzeko aukera ematen du. Argazkiak eta bideoak deskargatzeko, lagunak egiteko, txateatzeko... aukera ere ematen du. Hamalau urtetik gorako edozein pertsonak eman dezake zerbitzu honetan izena. Facebooken iragarkia egiteko aukera ere bada: zerbitzu horrek kostu ekonomikoa du. Sustapenerako eta beste erabiltzaile batzuekin harremanetan egoteko tresna egokia izan daiteke. Munduan 300 milioi erabiltzaile ditu. Erabiltzaileen profila: 20-35 urte artekoak (unibertsitate ikasleak).

Tuenti 2.0 webean oinarritutako lagunaren sarea da, eta gazteei eta nerabeei dago zuzenduta bereziki. Tuenti orriaren intimitate maila aukera daiteke: zure lagunak soilik ikusteko, zure lagunaren lagunak ikusteko edo edonork ikusteko. Oso erraza da pertsonak aurkitzea: izena eta abizenak, lantokia edo ikastetxea, helbidea, asteburuetan non irte den eta abar emanda bakarrik. Euskarazko bertsioa ere badu. Tuenti gune pribatua da; beraz, kide den norbaitek gonbidatu behar zaitu bertan izena ematera. Izena eman ondoren, 10 lagun gonbidatzeko aukera izango duzu. Erabiltzaile gehienek 13 eta 20 urte bitarte dituzte. Plataforma batez ere norbanakoei zuzenduta dago, eta erakundeek, taldeek edota elkarteek ezin dute Tuenti kontua izan.

2.0 KOMUNIKAZIO PLATAFORMEN LABURPEN KOADROA

PLATAFORMA	HELBIDEA	EZAUGARRIAK	ERABILTZAILEEN PROFILA	Erregistroa
FACEBOOK	www.facebook.com	Orokorra. Lagunekin harremanetan egoteko eta informazioa partekatzeko gunea.	20-25 urte. Unibertsitate ikasleak. 300 milioi	13 urtetik gorakoentzat irekia
TUENTI	www.tuenti.com	Orokorra. Lagunekin harremanetan egoteko gunea. Helburua ez da promozioa. Asko erabiltzen da Estatu Espainiarrean.	Nerabeak. 7 milioi	Gonbidapen bitartez. 14 urtetik gorakoak
YOUTUBE	www.youtube.com	Bideoak partekatzeko gunea		Ireakia
FLICKR	www.flickr.com	Argazkiak partekatzeko gunea	Argazkilariak edo argazkilaritza zaleak. 4 milioi	Ireakia (Yahoo!login)
MYSPACE	www.myspace.com	Orokorra. Mundu osoan ezaguna	Musika taldeak. 210 milioi	Ireakia. 14 urtetik gorakoak
FOTOLOG	www.fotolog.com	Argazkien bloga. Oso erabilia Hego Ameriketean, Espainian, Ameriketako Estatu Batuetan...	Gazteak. 13 milioi	Ireakia
BLOGGER	www.blogger.com	Blogak argitaratzea		Ireakia
TWITTER	www.twitter.com	Mikro-blogak, testu laburrak hedatzeko gunea	Teknologia adituentzat. 50 milioi	Ireakia
ISSUU	www.issuu.com	Pdf-ak modu erakargarrian partekatzeko gunea	Profesionalak	Ireakia
NETVIBES	www.netvibes.com	Hainbat leihotik abiatuta, web orriak sortzeko gunea	Profesionalak	Ireakia
MARKATZAILE SOZIALAK	www.bildu.com / www.delicious.com	Web interesgarriak partekatzeko gunea		Ireakia
LINKEDIN	www.linkedin.com	Sare sozial profesionalak. Negozioak	Profesionalak. 19 milioi	Ireakia
SLIDESHARE	www.slideshare.net	Power point aurkezpenak partekatzeko gunea	Profesionalak	Ireakia

Gipuzkoangazte.info: gazteen informazioko eta dokumentazioko gipuzkoako lurralde zentroak sare sozial birtualetan izaniko esperientzia

Hemen duzue **Gipuzkoangazte.info** esperientzia, Gipuzkoa Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiak eta Gazte Informazioko Gipuzkoako Bulego eta Puntu Sareak elkarlanean sortutakoa. Zer den eta nola funtzionatzen duen hobeto ezagutzeko, ekimena dinamizatzeko ardura duen taldearekin hitz egin dugu.

Hasteko, azaldu behar dugu Gipuzkoak 686.665 biztanle dituela, eta horietatik 120.678 14 eta 30 urte arteko gazteak direla. Guztira, gazte informazioko zortzi puntu eta hamazazpi bulego daude lurraldean. Zerbitzu horietan, interesatzen zaien informazioa aurkitzeko aukera dute gazteek, baita kezka eragiten dieten gaiei buruzko ekarpenak zein proposamenak egiteko ere.

Nola sortu zen ekimena?

Gazteengana modu zuzenagoan eta eraginkorragoan iristeko beharraren ondorioz sortu zen ekimena. Hala, informazioa ematen zuen web orria blog bilakatu zuten (www.gipuzkoangazte.info), lankidetzan aritzeko bide berri bat zabalduta.

Nagore García eta Izaskun Roperok elkarrizketan azaldu ziguten bezala¹, zerbitzu horietara gazte gutxik jotzen zutela ikusita, haiengana iristeko beste modu batzuetan pentsatzen hasi ziren. Erantzuna gaur egun masiboki erabiltzen diren plataforma edo sare sozial berrietan egon zitekeela iruditu zitzaizkien. Beraz, ildo hori ikertzen eta aztertzen hasi ziren.

Azterketaren helburua sare sozialak hobeto ezagutzea zen, baina baita horien balizko arriskuak identifikatzea eta gazteei nola eragin ziezaieketen zehaztea ere. Argi zegoen gazteek sare sozial horiek erabiltzeko joera handia zutela; horregatik, merezi zuen komunikabide berria erabiltzea.

Hasieran, bi zailtasun izan zituzten:

1. Plataforma edo sare horien inguruan zuten ezagutza falta. Azaldu zigutenaren arabera, haiek informatzaileak dira eta erabiltzaile diren neurrian baino ez dute fenomeno honen berri.
2. Ez zekiten erakunde publiko izanda baliabide horiek plataformetan erregistratutako pertsonen informazioa helarazteko erabiltzerik izango ote zuten. Bestalde, nola eman erakunde publikoetatik Internetarako «jauzia»?

1. Entrevista realizada por el grupo de Investigación de Gazte Faktoria a Nagore García e Izaskun Roperok (04/02/2010). Centro Territorial de Información y Documentación Juvenil de Gipuzkoa. Diputación Foral de Gipuzkoa. Blog: www.gipuzkoangazte.info. @: Ctj1@gipuzkoa.net Tfno. 900 110 111.

Beste autonomia erkidego batzuetan zeuden ekimenak aztertzen hasi ziren; hots, zer nolakoak ziren plataforma horiek eta bakoitzak zer eskaintzen zuen.

Interneten egindako saioak

Sare berriak ezagutzen joan ahala, esperientzia berria izan zitekeela ikusi zuten; parte-hartzea bultzatzeko moduko esperientzia. Eta hala planteatu zuten.

Horretarako, blog bat sortu zuten lehenik eta behin: *www.gipuzkoangazte.info*. Ondoko ezaugarri hauek zituen:

- Blogaren eta web orriaren arteko hibridoa zen.
- Informazio iturri nagusia zen.
- Lana sarean egiteko aukera ematen zuen.
- Dinamikoa eta eguneratua.
- Elebiduna (artikuluak eta iruzkinen erantzunak).
- Gazteen hizkuntza erabiltzen zuen.
- Kudeatu egiten zituen iruzkinak.


Bloga martxan jarri ondorengo balarazioa atxikitako eskeman dago:

www.gipuzkoangazte.info blogak izaniko arrakasta ikusita, komunikabide berriak aztertzen hasi ziren. Orduan eman zuten sare sozialetara jauzia.

Facebooken murgiltzen

2009ko urtarrilean hasi ziren Facebooken esperimentatzen. Bi arrazoigatik egin zuten sare horren aldeko aukera: erabiltzaileen profilagatik eta plataformak ematen zituen aukerengatik.

Hurrengo urratsa, zer informazio zabalduko zuten erabakitzea izan zen. Aurrez eginda zeukaten lana berriro egin beharrik ez izateko, *www.gipuzkoangazte.info* blogeko informazioaz baliatu ziren.



Facebookeko esperientzia:

- 500 lagun baino gehiago ditu.
- Hilean 300 bisitari baino gehiago *www.gipuzkoangazte.info* webgunean, Facebooken bitartez.
- Plataforma blogean ageri ez den informazioa azkar eta modu eraginkorrean hedatzeko erabiltzea.
- Blogeko informazioa zabaltzeko beste bide bat da. Sustapen estrategia bat da.

Twitterren murgiltzen

2009ko otsailean eman zuten Twitterrerako jauzia, eta kontu bat sortu zuten bertan. Gazte informazioko bulegoekin harremanetan egoteko aukera ematen zuen plataformak, eta blogeko informazioa zabaltzeko beste bide bat ere bazela ikusi zuten.

Bi ziren plataforma honen abantaila nagusiak: informazioa azkar eta erraz zabaldu ahal izatea, eta komunikatzeko kanal berria izatea. Web orria are bisita gehiago izaten hasi zen, eta gazteen alorreko profesionalekin harremanetan jartzea eta haien lana ezagutzea lortu zuten. Horrez gain, erabiltzaileak hobeto ezagutzeko aukera izan zuten (zaletasunak, harremanetan egoteko moduak, hizkuntza, etab.).

Halere, Twitterrek bazuen desabantailarik: iruzkin negatiboak edo lekuz kanpokoak ezin kontrolatzea, batetik, eta, bestetik, bi hizkuntzetan lan egiteko aukera gutxi izatea.

Tuentin murgiltzen

Tuenti plataforman ere aritu zirela azaldu ziguten, baina denbora gutxian ordea, aurreko plataformetako lan berbera egiten saiatu ziren arren, galarazi egin zirelako sarbidea.

Izan ere, Tuenti plataforman banakoak komunikatzen baitira; taldeek, elkarteek, erakundeek, zaletu elkarteek edota sustapenerako asmoak dituzten erabiltzaileek ez baitute bertan lekurik.

Abian jarri dituzten esperientziak ezagutu ondoren, etorkizunerako zer asmo daukaten galdetu diegu. Haien ustez, behar-beharrezkoa da IKTetara egokitzea, azkar batean aldatzen ari den munduan gazteengana iritsi ahal izateko. Emandako erantzunetako batzuk etorkizunerako jarraibideen atalean daude jasota.

Proposamenen dokumentua:

Nola heldu sare sozial birtualen gaiari Gipuzkoan?

Egoera aztertzeko hiru informazio tresna erabili ditugu. Batetik, Gorka Julio¹ informatika adituarekin egindako elkarrizketa; gaur egungo errealitatea eta etorkizuneko joerak aztertu ditugu harekin. Bestetik, Gazteen Informazioko eta Dokumentazioko Lurralde Zentroko bi arduradunekin egindakoa: Nagore Sanz eta Izaskun Ropero². Azkenik, tokian tokiko gazte informazio zerbitzuek sarean duten presentziaren azterketa.

Gorka Juliori egindako elkarrizketan ikusi dugu antzekotasun handiak daudela Gipuzkoako gazteek bizi duten egoeraren eta nazioartean eta Estatuan gauzatutako azterlanen ondorioen artean. Ondoko zerrenda honetan gazteek 2.0 komunikazioan nola jarduten duten ulertzeko hainbat ideia zehaztu ditugu.

- Sare soziala izena ez da kontzeptua definitzeko egokiena; izan ere, sare horiek badaude gizartean (koadrilak, kirol taldeak, institutuko lagunak...), baina talde horiek osatzen dituzten pertsonak berak dira komunikatzeko sistema berri bat bilatu dutenak, birtuala hain zuzen. Horrenbestez, ezin ditugu sare sozialak berritasun moduan aipatu, mundu errealean gertatzen denaren garapen bezala baizik. Egokiena sare sozial birtualez hitz egitea da.
- Hamabi eta hamasei urte bitarte dituztenean hasten dira sare sozialetan parte hartzen, baina beste talde batzuk ere bereiz daitezke, izan ere, hamasei eta hemezortzi urte artekoena eta hemezortzi urtetik gorakoena, adituagoak direnak.
- Hamabi eta hamasei urte artekoek aurreko belaunaldiek adin horrekin ezagutzen ez genuen harremanetan aritzeko modua dute. Dirudienez, horrek eragina izan du beren portaeretan. Alde horretatik, etapak edo bizipenak aurrera direla esan genezake. Hau da, gaur egun adin horrekin izaten diren harremanak, 16-18 urterekin edukitzen ziren duela hamarkada bat, jendea beste herri batzuetara joaten hasten zelako edo unibertsitateara joaten zelako. Ildo horretatik, esan daiteke harreman mota ez dela aldatu, garapen etapak dira aurreratu direnak, eta gainera beste pertsonekin harremanetan egoteko erraztasun handiagoak dituzte, lekuz aldatu gabe.
- Gazteek harremanak izateko lehen etapa helduek (gurasoak, hezitzaileak) zehazten dute. Gazteak 16-18 urterekin hasten dira erabakitzen zein talderekin nahi duten harremanetan egon. Ildo horretatik, Internetek askatasuna eman die, ez baitago heldurik, eta erabiltzaileek erabakitzen baitute norekin komunikatu. Hori izan da Tuentiren indarguneetako bat.
- Gazteek sare sozial birtualetara eramaten dituzte kaleko koadriletan ezarritako kodeak eta arauak. Hala ere, antzeko rola daudela susmatzen dugun arren, badirudi sistemaren intimotasunak taldeko pertsonen artean aurrez ezarritako rola trukatzen laguntzen duela.
- Gazteek Interneten gehien egiten dituzten jarduerak ondoko hauek dira: sare sozialetan egon, messengerren ibili, banaka edo sarean jokatu, bideoak eta filmak ikusi, musika eta argazkiak deskargatu eta eskolako lanak egiteko informazioa lortu.

1. Gazte Faktoriako ikerketa taldeak Gorka Juliori (Elurnet enpresa) Andoainen egindako elkarrizketa (2010/02/16).

2. Gazte Faktoriako ikerketa taldeak Nagore Sanzi eta Izaskun Roperori egindako elkarrizketa (2010/02/04). Gazte Informazio eta Dokumentazioko Gipuzkoako Lurralde Zentroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Bloga: www.gipuzkoangazte.info . @: Ctij1@gipuzkoa.net . Tel.: 900 110 111

- 2.0 komunikaziorako gaitasunak familiako kideren batekin edo ikastetxean hasten dira ikasten, baina hamabi urtetik aurrera gazteak autodidaktak dira, oro har. Noizean behin gazte adituren baten laguntza jaso dezakete, baina gehienetan esperimentatuz ikasten dute (saioa: arrakasta-errorea).
- Adinak sare bateko edo besteko kide diren jakiten laguntzen du. Gaur egun, 12-16 urteko gazte gehienek Tuenti erabiltzen dute eta 16-18 urtetik gorakoek, Facebook.
- Gazteek «giro oneko» aisia guneak aurkitu nahi dituzte sareetan parte hartzen dutenean. Horrenbestez, gizartean eragin handiena duten albisteak edo bideoak haiek bezalako pertsonak sortzen dituzte eta umorez eta sinpletasunez komunikatzen dira.
- Gazte informazio zerbitzuek eskainitako informazioa jasotzeko irekienak edo «iragazkorrenak» 12 eta 16 urteko gazteak dira. Giltza, haiek atsegin dutena edo interesgarritzat jotzen dutena asmatzea izan ohi da sarri. Horregatik, garrantzitsuena da heltzen zaienak formatu erakargarria izatea. Erabiltzaile talde txiki batek interesa erakutsi ondoren, oso erraza da besteei zabaltzea.
- Beste aukera bat gazteekin sareen bidez harremanetan dagoen erreferentziako pertsona (hezitzailea, begiralea, irakaslea...) aurkitzea da. Haiekin sareak partekatzeak beren nahiak, zalantzak, eta abar zein diren jakiteko aukera zuzena emango luke. Baina horretarako gazteek onartu behar dute erreferentziako pertsona hori sareko kide izatea eta aukeratu egin behar dute. Elkarreragin horrek interesatzen zaizkien gaiak planteatzeko arrastoak emango lituzke, baina horretarako erreferentziako pertsona hori egon behar da, eta gazteek harekin harremanetan egoteko eta gauzak partekatzeko gogoia izan behar dute.

Sare sozial birtualen egoera orokorraren adierazleak behin azalduta, erakundeetako haur eta gazte sustapen zerbitzuen esku-hartzea mahai gainean jarrita osatu behar dugu errealitatearen azterketa.

Gipuzkoako lurralde historikoan, nabarmentzekoa da Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiak eta Gipuzkoako Gazte Informazio Bulegoak elkarrekin sare sozial birtualetan egindako lana (monografiko honen 2. atalean azaltzen da).

Udalerrien kasuan, haur eta gazteen udal zerbitzuek 2.0 komunikazioarekin lotuta egoniko lanak azpimarra ditzakegu. Adibidez, Arrasaten, Oiartzunen, Irunen eta Donostian, besteak beste, blogak sortu dituzte. Helburua bulegoan zuten informazioa birtualki ematea izan da, komunikazio tresna horien bitartez.

2.0 KOMUNIKAZIOAREN INGURUAN LAN EGITEKO AZTARNAK

Haur eta gazteria zerbitzuek gazteen informazio eta komunikazio alorrean egiten duten lanaren inguruan ikuspegi berri bat emateko hainbat proposamen egin nahi ditugu ondorio modura.

SENTSIBILIZAZIOA:

- Hedabideekin eta helduekin lan egitea, sare sozialak ez ditzaten ikusi arrisku iturri edo denbora-galtze bezala.
- Arduradun publikoei, teknikariei, hezitzaileei, gurasoei eta gizarteari jakinaraztea komunikazio plataformen garrantzia. Izan ere, sozializatzen laguntzen dute, kaleko beste esperientzia batzuk bezala. Gainera, ez dituzte «mundu errealeko» harremanak ordezkatzeko.
- Sare sozial birtualak erreal deitutako bizitzan egiten diren jarduerak gauzatzeko gune gisa identifikatzea, adibidez: hitz egiteko, jokatzeko, argazkiak eta bideoak ikusteko, kontuak kontatzeko, festak antolatzeke, geraldia egiteko, informazioa emateko eta jasotzeko, lagunak ezagutzeko.
- Sare sozial birtualak gazteek ondo pasatzeko, barre egiteko, hitz egiteko... aisialdi gune birtualtzat jotzea. Gainera, gaitasun sozialak lantzen dituzte, beren irudi pertsonala kudeatzen dute, beren jarreraren feedbacka onartzen dute, taldearen aurrean adierazpen pertsonala hobetzen dute.
- Gazteen sozializazio prozesuan duten garrantzia aitortzea eta gune horiek koordinatzeko eta sustatzeko eta trebakuntza, informazio, aholkularitza eta dinamizazioa eskaintzeko programak edo zerbitzuak sortzea.

TREBAKUNTZA:

- Sare sozialen erabileraren alderdi teknikoari eta sozialei buruzko trebakuntza eta aholkularitza ematea nerabeei, hainbat tresnaren bidez (wiki, online aholkularitza...).
- Haur eta Gazte Sustapen Sistemako eragile adituei prestakuntza ematea digitalki, mundua ikusteko lengoia eta modu berriak sortzeko konpetentziak lor ditzaten.

INFORMAZIOA:

- Sareen inguruan lanean jarraitzea, gazteekin parte-hartzea eta elkarreragitea lortzeko.
- Komunikaziorako bide berriak sortzea, plataformek dituzten aukerak aprobetxatuta.
- Beste zerbitzu batzuen kalitatea hobetzea (gazteei buruzko astekariak, SMSak banatzeko zerbitzuak...).

Gazte informazio bulego guztiek sare sozial birtualetan parte har dezaten lortzea.

KOMUNIKAZIOA-DINAMIZAZIOA:

- *Gazte dinamizazioa digitalizatzea (internet bidezko oharrak, buletin elektronikoak, liburu elektronikoak, material digitala) Haur eta Gazte Sustapen Sistema sarearen zerbitzuetan.*
- *Sareak dinamizatzen saiatzea gazteek sarean parte hartzeko onartzen dituzten erreferentziako pertsonen bidez (gaztelekuetako dinamizatzaileak, udalekuetako begiraleak, abentura programetako dinamizatzaileak...).*
- *Komunikazio produktu argiak (irudiak, bideoak, komikiak, gidak...) ematea, beste ikuspegi bat ematen dutenak, eta sare sozial birtualetan banatu daitezkeenak.*

Zerrenda hau handitzea zure esku dago. Azken finean, gure asmoa haur eta gazteen alorrean lan egiten duten eragileen artean hausnarketa pizteko ideiak ematea da, baita behar aldakorretara ahalik ondoen egokitzen diren politikak diseinatzeko eztabaidak sortzea ere. *Anima zaitetz eta bidaliezazkiguzu zure proposamenak ondoko helbide elektroniko honetara: e-gaztemira@gipuzkoa.net*

Tresnak

Gaiari buruzko gehiago jakiteko...



- Garmendia, Maialen; Garitaonandia, Carmelo. *Cómo usan Internet los jóvenes: hábitos, riesgos y control parental*. [linean]. Bilbo: Universidad del País Vasco, 2009. <http://www.ehu.es/eukidsonline/INFORME%20FINAL-INTERNET.pdf> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Del patio del colegio a la Red desde la habitación*. [linean]. Durango:CONSUMER,2008. <http://revista.consumer.es/web/es/20080601/internet/72607.php> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *La Juventud y las Redes Sociales. Informe de resultados de la encuesta*. [linean]. Fundación Pfizer,2009. http://www.fundacionpfizer.org/pdf/INFORME_FINAL_Encuesta_Juventud_y_Red_Sociales.pdf [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Facebook: la guía definitiva para desenvolverse por la mejor Red Social*. Revista Computer Hoy. nº273, páginas 12-13.
- Julio, Gorka. *Nerabeak eta Interneteko sare sozialak*. Andoain:Berria, 18 de febrero del 2010 18ª. 33



- *Gipuzkoangazte. info blog*. [linean]. www.gipuzkoangazte.info [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Estadísticas del blog gipuzkoangazte (2009)*. [linean]. Donostia:Gaztematika,Diputación foral de Gipuzkoa. <http://www.gipuzkoangazte.info/artikulu.asp?zeartikulu=7955> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Web 2.0 y red social*. [linean]. Pozuelo: Concejalía de Juventud de Pozuelo (Madrid). www.pozueloalcubo.es [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- Orihuela, José Luis. *Juventud y redes sociales: un decálogo para padres y educadores*. [linean]. MMLAB, Fcom/UNAV [eduaderno.com](http://www.eduaderno.com) <http://www.eduaderno.com/2009/02/28/juventud-y-redes-sociales-un-decalogo-para-padres-yeducadores/> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- Pérez de Villarreal, Naiara. *Guía sobre el uso de Twitter en la empresa*. Bilbo. [linean]. Disponible en Web: <http://www.slideshare.net/naiarapzv/gua-sobre-el-uso-de-twitter-en-la-empresa-3184310> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Plataforma europea para profesionales de la información juvenil*. [linean]. Disponible en Web: <http://beta.youthagora.org/sheryica/> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- Ugarte García, D. *El poder de las redes. Manual ilustrado para personas, colectivos y empresas abocados al ciberactivismo*. [linean]. 2007.136 http://www.deugarte.com/gomi/el_poder_de_las_redes.pdf [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]



- Fundación iWith.org . *Internet para ONGs*. [linean]. Disponible en Web: <http://www.iwith.org/> . info@iwith.org [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *De la comunicación a las redes sociales*. [linean]. Disponible en Web: <http://www.slideshare.net/joduba/esade-internet-para-ongs-madrid-2009-online> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Gazte informazioa - Sare sozialak 2.0* . [linean]. Disponible en Web: Gipuzkoa: Informazioa Zerbitzua. Dirección General de Infancia y Juventud. Diputación Foral de Gipuzkoa. <http://issuu.com/gipuzkoangazte/docs/saresozialak> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Jornadas "Jóvenes y Redes Sociales 2009" de Ingenio*. [linean]. Disponible en Web: <http://www.slideshare.net/ingeniojoven> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Comunicación 2.0-Información juvenil . Gazteen informazio eta dokumentazioko Gipuzkoako Lurralde Zentroaren esperientziari buruzko power point dokumentua* [linean]. Ingenioren «Jóvenes y Redes Sociales 2009» jardunaldiak. 2009ko Abenduaren 1tik 3ra. Gran Canaria: Concejalía de Juventud del Ayuntamiento de la Villa de *Ingenio*. Disponible en Web: <http://www.slideshare.net/gipuzkoangazte> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- Ortiz Medina, Antonio. *Que pasa con internet*. Ingenioren «Jóvenes y Redes Sociales 2009» jardunaldiak. 2009ko Abenduaren 1tik 3ra. Gran Canaria: Concejalía de Juventud del Ayuntamiento de la Villa de *Ingenio*. [linean]. <http://www.slideshare.net/ingeniojoven/ponencia-antonio-ortiz-dirigida-a-aticnicos-de-juventud-jornadas-jvenes-y-redes-sociales-2009> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- Naiara Pérez de Villarreal *Guía sobre el uso de Twitter en la empresa*. [linean]. <http://www.slideshare.net/naiarapzv/gua-sobre-el-uso-de-twitter-en-la-empresa-3184310> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Hogeyti sare soziala*. <http://hogeyti.net/>. [linean]. http://www.hezizerb.net/castellano/pdf/presentacion_hogeyti.pdf [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- Orihuela, J.L. *Un decálogo para padres y educadores*. [linean]. www.ecuaderno.com
Disponible en Web: <http://www.slideshare.net/jlori/juventud-y-redes-sociales-un-declogo-para-padres-y-educadores>. [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Protegeles. Web informativa para familias*. [linean]. Disponible en Web: <http://www.protegeles.com/> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Chaval*. Web dirigida a la infancia. [linean]. <http://www.chaval.es/> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Nodo de prevención*. [linean]. Disponible en Web: <http://www.safenet2.com/sp/index.php> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Ciberfamilias*. [linean]. <http://www.ciberfamilias.com/index.htm> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *ICRA*. [linean]. <http://www.icra.org/kids/familycontract/> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]
- *Sareei buruzko prebentzio bideoa*. [linean]. <http://www.youtube.com/watch?v=ja8xtQNQYDQV> [kontsulta: 2010eko otsailaren 22a]



mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.



Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social
Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa